

LABURMETRAIA: KUTXA


Enpatia

Imagina ezazu egun batean arratoi bat topatzen duzula zure sukaldean. Zer egingo zenuke?

Istorio honek ENPATIA izatearen garrantzia erakusten digu. Baina zer da **ENPATIA**?

Besteen lekuan jartzea eta sentitzen duena ulertzea da enpatia.

- Ordenatu ondorengo irudiak gertatzen diren ordenaren arabera:



- Zer egiten du bere sukaldean arratoi bat dagoela konturatzen denean?

- Zergatik erabakitzen du gizonak arratoia bere etxetik ez botatzea? Zerk egiten dio iritziz aldatzea?

- Zer egiten du gizonak arratoia erosoago sentitzeko kutxa barruan dagoenean?

- Uste duzu gizonak enpatia izan duela arratoiarekin?